



BIZUMEN ALTA BERRIAK LORTZEKO SUSTAPENA

Mugikor baten zozketa: Samsung Galaxy Z Fold5 512 GB | 12 GB

1.- Definizioa:

KUTXABANK SAK ekintza komertzial bat egingo du **BIZUM ZERBITZUA SUSTATZEKO** Estatu osoan. Adinez nagusi diren pertsona fisiko guztiek parte har dezakete, Kutxabankeko bezero badira eta oinarri hauetako baldintzak betetzen badituzte.

Zozketa egingo da soil-soilik publizitate- eta sustapen-helburuekin, eta ez du ekarriko ez gainpreziorik ez tarifa gehigarririk parte-hartzaileentzat.

2.- Sustapen honetan **telefono mugikor** bat zozketatuko da: **Samsung Galaxy Z Fold5 512 GB | 12GB.**

3.- Kanpaina egingo da 2024ko maiatzaren 1etik 31ra (bi egun horiek barne); zozketa, 2024ko ekainaren 18an, edo, egun horretan egiterik ez badago, egun horretatik hurbil legokeen beste batean.

Kutxabankek eskubidea izango du sustapen hau eteteko edo baliogabetzeko, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatzeko, arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo haren borondatek kanpoko beste edozein arrazoiengatik. Kasu horretan, ez du inolako erantzukizunik izango aldaketa horrengatik, eta haren konpromisoa izango da oinarri eta baldintza berriak jakinaraztea eta haien berri ematea, edo, hala badagokio, sustapena bertan behera uztea, nahikoa denborarekin jakinarazita beti.

4.- Sustapenean parte har dezakete adin nagusiko pertsona fisikoek, Kutxabankeko bezero badira eta zozketaren egunean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Sustapen-aldian Bizum Partikularrak kontratu bat aktibatzea Kutxabanken, eta kontratu berri horren pertsona fisiko titularrak Bizum Partikularrak kontratu aktiborik ez edukitzea Kutxabanken sustapen-aldia hasi aurreko hilean; hau da, 2024ko apirilaren 1etik 2024ko apirilaren 30era bitartean (bi egun horiek barne). Zozketaren egunean aktibo jarraitzea Bizum Partikularrak kontratu berriak.
- Kutxabanke zozketatik kanpo utziko ditu erakundearen saldo zordunak mugaeguneratuta dituzten pertsona fisikoak, edo zozketaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak, eta kanpoan utziko ditu ere datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialak ez bidaltzeko fitxategi komunen batean daudenak.
- Sustapen honetatik kanpo geratuko dira ere Kutxabankeko langileak.

5.- Parte-hartzaile bakoitzari emango zaio zozketan parte hartzeko aukera bat. Aukerak zenbakitu egingo dira era korrelatiboan 1 zenbakitik hasita.

6.- Era berean, Bizum Partikularrak kontratua aktibatu den egiaztatzeko, baliozkotzat hartuko dira 4. puntuan aipatutako Bizum Partikularrak kontratuen aktibazioak, kanpainen zehar eginikoak, 3. puntuan jasotakoaren arabera. Aktibazio horien berri emango zaio Kutxabanki, fitxategi informatikoak egiteko egunetan, sareekin eta erakundeekin informazioa trukatzeko sistemen bitartez.



7.- Zozketa egingo da 3. puntuaren adierazitakoaren arabera, notario aurrean. Horretarako, fitxategi informatiko bat sortuko da, 4. puntuaren aipaturako prozeduraren bidez sustapenean izena emango duten pertsonen osatua, NAN zenbakiaren arabera ordenatuta eta NAN bakoitzari esleitutako aukeraren zenbakia zehaztuta.

8.- Zozketan, notarioak zenbaki bat aterako du ausaz kutxa batetik, 1 zenbakiaren eta esleitutako azken zenbakiaren artekoa. Zenbaki hori izango da sariduna.

Erreserbako aukerak zehazteko, atera den zenbakiari honako hau gehituko zaio prozedura informatikoak erabilita: fitxategiaren erregistratutako aukera guztien kopurua sariaren kopuruaz (1) gehi erreserben kopuruaz (15) zatitzearen emaitza; hau da, 16z zatituko da, eta zatidura biribildu egingo da beharantz (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta). Horrela, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, kalkuluak jarraituko du erregistratutako lehen aukerarekin, erreserba-kopurua (15) osatu arte, kontuan harturik erreserbako aukerak, atera diren hurrenkeraren arabera.

9.- Pertsona bakoitza behin bakarrik irabaz dezake saria.

10.- Saridunari saria irabazi duela jakinaraziko zaio, ondorio guztietarako (ondorio fiskalak barne), gutunez, telefonoz, posta elektronikoz edo Kutxabankek egokitzen jotzen duen beste edozein bitarteko erabiliz.

Saridunak emandako datuetan akatsen bat badago edo beste edozein arrazoiengatik ezin bazaio emaitzaren berri eman zozketa egin eta hamabost egun naturaleko epean, saridunak ez du saria jasoko eta Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango. Hori gertatuz gero, saria automatikoki emango zaie hurrenkeraren arabera erreserben zerrendan daudenei. Sustapen honetako saria ezin izango da inola ere trukatu, aldatu edo konpentsatu, ez eta dirutan jaso ere haren kontrabaliotzat.

Saridunak uko egin ahal izango dio sariari, baina ezingo du eskatu saria beste norbaiti emateko. Uko eginez gero, zozketaren hurrengo erreserbarentzat izango da saria.

11.- Saria emango zaio saridunari Kutxabankek erabakitako tokian eta moduan.

12.- Saridunak jakinarazi beharko du saria onartzen duela, horretarako sortuko den fitxa sinatuta, sariaren jakinarazpena jaso eta hurrengo 5 egun naturaletan.

13.- Sariari uko eginez gero, idatziz jakinarazi beharko da sariaren jakinarazpena jaso eta hurrengo 5 egun naturaletan. Sariari uko egingo dionak ez du inolako konpentsaziorik jasoko.

14.- Saridunari jakinarazpena bidali eta haren inolako komunikaziorik jasotzen ez bada (ez saria onartzekoa ez uko egitekoa) 5 egun naturaleko epean, saridunak sariari uko egin diola ulertuko da, eta Kutxabankek dagokion erabakia hartu ahal izango du.

15.- Zozketan parte hartuko duten pertsonen datu pertsonalak sartuko dira Kutxabanken Informazio Sistemari, parte-hartze hori kudeatzeko.

Datuak erabiliko dira soil-soilik saridunaren izena, abizenak eta/edo irudi pertsonala erabiltzeko, erreproduzitzeko edo zabaltzeko edozein publizitate- edo sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, eta jarduera horiek ez dute inolako onurarik edo ordainsari-eskubiderik emango, baldin eta saridunaren edo haren legezko ordezkariaren berariazko adostasuna badute.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da edozein unetan kontrol-agintaritzan aurrean. Gainera, baliatu ahal izango dira ere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako



eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak, idatzi bat bidalita Kutxabanken egoitza sozialera edo info@kutxabank.es helbide elektronikora, NANaren kopia erantsiz kasu batean nahiz bestean. Uste baduzu zure datu pertsonalak ez ditugula arauen arabera tratatu, harremanetan jar zaitezke Datuak Babesteko ordezkariarekin, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

16.- Saridunak bere gain hartuko du sariaren ondorioz sortutako edozein karga fiskal.

17.- Zozketa honetan ezin izango du saririk jaso sustapenean parte hartzeko aukera ematen zuen Kutxabank Bizum Partikularrak kontratua zozketa-egunerako bertan behera utzi duen inork.

Saria jasotzeko, ezinbestekoa izango da bezeroak egunean edukitzea Kutxabankeko ordainketak eta beste edozein eragiketa, eta ez du inolako zorrik izango erakundearekin.

18.- Sustapen honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea, parte-hartzailearen berariazko baimenik behar ez duten sustapenerako ezarritako baldintzei dagokienez. Kutxabankek sustapenetik kanpo utzi ahal izango ditu haren oinarriak bete ez dituzten bezeroak.

19.- Oinarri hauek eskura daude KUTXABANKen web orrian (www.kutxabank.es).

Bilbo, 2024ko apirilaren 30a